

Gomendatutako liburua:

-Richard, Lionel. "Del expresionismo al nazismo: arte y cultura desde Guillermo II hasta la República de Weimar". Gustavo Gili. Barcelona. 1979.

ESPRESIONISMOA

Artearen historiaren une desberdinetan behin eta berriz agertzen zaigu jarrera hau. Espresionismoaren eta erromantizismoaren artean dagoen hurbiltasuna klasikotasunari kontrajarritako kategoria gisa onartzen da.

Zentzu estuan, espresionismoa XX. mendearen hasieran Europan zehar hedaturiko kultura mugimendu zabala izan zen eta eremu desberdinetan hartu zuen parte. Adibidez, arte plastikoetan, zineman, antzerkian, eszenogrfian eta abarretan. Wilhelm Worringer historialari eta teorikoari egozten zaio espresionismo hitza lehen aldiz erabili izana. Mugimenduaren abiapuntua "Der Sturm" aldizkaria izan zen, zehazki esanda, 1911.ean argitaraturiko testu bat. Espresionismoa egoera soziokultural baten ondorio gisa agertu zen.

Alemanian sortu zen nahiko epe luzearen zehar. Espresionismoak artistaren bizitzako esperientzia obrara eraman nahi zuen, artistaren bizipenak mihisean nolabait islatu zitezten. Pintura figuratiboa zen, baina errealitatearen aierupena ekarriz eta ez irudikapen hutsezko errealismoa. Bi talde nagusi antolatu ziren: Die Brücke (Zubia) eta Der Blaue Reiter (Zaldun Urdina). Bide horiek abstrakziora zuzendu ziren nahitaez, hau da, naturarekiko guztiz autonomoa zen pintura batetara, xehetasunak alde batera utzi eta errealitatearen sintesia adierazi nahian.

Bigarren belaunaldi honen artistarik garrantzitsuenak V. Kandisky izan zen. Espresionismoarako zuen garrantzia eskasa zen, 1910. urtean pintura abstraktua teorizatzen hasi zen. Irudikapenari buruzko Wörringer-en ideiak pinturaren arazoetara eraman zituen "Artearen izpiritualtasunaz" liburuan.

1913. ean, Die Brücke taldea desegin zenean, elkarrekin ziharduten oraindik Der Blaue Reiter taldeko artistek. Belgiar espresionismoaren sortzaile nagusia zen Constant Permeke-k gizakiaren eta luraren arteko lotura sinbolikoak landu zituen. Parisen ere mugimendu bera garatu zen, batez ere Marc Chagall-en eta Chaim Soutine-ren lanetan ikusten dira horren ezaugarriak. Espainian, mugimendu honen bereizgarri piktorikoak eta filosofikoak agertzen dira Isidro Nonell-en eta José Gutierrez Solana-ren lanetan batik bat.

Espresionismoaren aurrekinak eta aldiak:

- 1- Aurrekinak.
- 2- Die Brücke 1905-1914.
- 3- Neue Kunstlervereinigung (Artisten Elkarte Berria): Kandisky-k eta Jawlensky-k 1909-1911 urteetan eratu zuten eta erakusketa batzuk antolatu zituzten.
- 4- Der Blaue Reiter 1911-1916.
- 5- Vienako Sezession.
- 6- Novembergruppe (Azaro Taldea) 1918-1919: Talde honen izena Alemanian armistizioa sinatu zeneko datatik datorkigu, Weimarko Errepublika sortuz. Artista eta

intelektual batzuek gerraren porrotoari emandako erantzuna izan zen. Arkitekto batzuk zeuden bertan. Adibidez: B. Taut eta W. Gropius. Artisten artean Pechtein, C. Klein, O. Schlemmer eta Paul Klee egon ziren

7- Neue Sachlichkeit (Objektibitate Berria) 1919-1933: Abstrakzioaren kontrako erreakzio artistikoa izan zen. Espresionismoaren ezaugarri piktorikoak landu zituzten, baina, ostera, figurazioaren oinarriak defendatuz. Kritika eta errealismo soziala bultzatu zituzten. Gero, espresionismo primitiboaren ezaugarriak garbi ikus zitezkeen. Agertutako pinturretan errealitatearen xehetasun guztiak erakusten dira.

8-Entartete Kunst (Arte endekatuaren erakusketa) 1937: Hitler agintera heldu zenean 1933an, abangoardien artearen egoera oso larria hasi zen izaten. Naziek espresionismoko artisten lanak apurtu nahi izan zituzten. Alemania osoan zapalkuntza kulturala ematen hasi zen. 1937an Munich-en erakusketa bat antolatu zen, “Arte endekatua” izenarekin. Nazien ustez, artista desegokien lanak irudikatu ziren. Artisten artean espresionista asko zeuden. Erakusketa horretan, espresionisten lanen ondoan panel argigarriak jarri ziren abangoardien arteari buruz ironiaz hitz egiteko asmoz. Hurrengo urtean Gobernuaren Komisio batek lan horiek konfiskatu zituen, Arte Endekatuaren Legean oinarrituz. Lanak sutara jaurtiki zituzten, baita enkante (subasta) publikoetan saldu ere. Espresionismoko artistek haien lanak derrigorrez utzi behar izan zituzten eta, geroztik, ezin izan zuten margotzen jarraitu. Adibide gisa, mihiseak eta koloreak erosteko artistaren “txartel legitimoa” aurkeztu behar zen eta, noski, espresionistak egoera horretatik kanpo geratu ziren. Horrela, material artistikoekin merkatu beltz sendoa sortu zen.

Aurrekinak:

1885-1900. bitarteko urteetan agertu ziren espresionismoaren ernamuinak, Munch-en, Ensor-en, Van Gogh-en eta Toulouse-Lautrec-en lanetan. Ferdinand Hodler eta Georges Rouault-en lanak ere aipatu behar dira. Udazkenaren Aretoan, azkenengo honen lanak aurkeztu zirenean, 1905.ean jasotako kritikak oso ezkorrak izan ziren. Bere lanek distorsio erradikalak eta kolore bortitzak jasaten zituzten. Hark egindako irudiek Daumier-ren, Forain-en eta Toulouse-Lautrec-en irudien antza zuten. Gustave Moreau-ren ikaslea izan zen. Beharbada, haren obrarik ezagunena “Kristoren burua” dugu. Han sinbolismo erlijiosoa aurki daiteke.

EDVARD MUNCH

- “Karl Johan kalean arratsaldea” (1892)
- “Oihua” (1893)
- “Malenkonia (Jappe hondartzan)” (1893)
- “Rose eta Amelie” (1893)
- “Ahotsa” (1893)
- “Antsietatea” (1894)
- “Emakumea hiru egoeretan” (1894)
- “Madonna” (1895)
- “Musua” (1897)
- “Bizitza-dantza” (1900)
- “Autoerretratu Weimar-ren” (1906)

JAMES ENSOR

- “Maskara eskandalagarriak” (1883)
- “Harridura Wouse maskararekin” (1888)
- “Aingeru erreboltarien erorialdia” (1889)
- “Emakume zaharrak maskarekin” (1889)
- “Azpikeria” (1890)
- “Maskarada” (1891)
- “Demonioek Kristo oinazetu edo torturatuz” (1895)
- “Deabruak zirikatzen” (1895)
- “Eskeleto-pintorea” (1896)
- “Heriotza eta maskarak” (1897)

Die Brücke (Zubia) – 1905-1914

Fauves talde frantsesaren erabateko garaikidea izan zen eta talde biek elkarrekin aurkeztu ziren lehenengo aldiz 1905.ean. Die Brücke taldea urte horretan eratu zen Artista Elkarte gisa. Mugimenduaren sortzailea eta teorilari nagusia Kirchner izan zen. “Zubi” izena zentzu desberdinekin erabili zuten. Adibidez, hondamendi edo galera alde batera utzita, beste zerbait eratzeko nahian oinarrituz. Dena dela, Dresde hiria zubien hiria zen.

Mugimendu honen iturriak hurrengoak izan ziren: taldeko kontzientzia ateista, Nietzschek esan zuen bezala, munduan Jainkoaren esistentzia desagertuta zegoen; Nietzsche-ren eraginaz, arte, erlijio eta bizitzaren ikuspegi orokorrera jotzen zuten; sexualitatearen kontzeptu oinaztatua eta zentzu fatalista, deusestatzailea; gizartearen beharren eta arazoaren aurrean erantzun artistiko bat eman; norbanakoaren eta emozioaren baieztapena; Kierkegaard eta Van Gogh-en mistikarekin, Munch-en agoniakzko sentipenarekin eta Ibsen, Björnson eta Strindberg-en errebeldiarekin erlazionatzen zen; apainduraren kontrako borroka egin nahi zuten; haien garaiko duintasun poetikoaren, zentzu musikalaren eta edertasunaren eta gustuaren estilizazioaren kontra ere bazeuden; izpiritu dionisiako bat eman zen.

1905. ean, Alemanian, Dresden hain zuzen ere, artista gazteen beste talde bat sortu zen, artista-komunitatea bihurtzea zela helburu. Van Gogh-ek eta Gauguin-ek taldearen sorkuntza bultzatu zuten. Talde txikia zen, baina bere proposamen teorikoak eta pikturikoak oso garrantzitsuak ziren. Taldean Ernst Ludwig Kirchner-ek, Erich Heckel-ek, Karl Schmidt-Rottluff-ek eta Fritz Bleyl-ek hartu zuten parte. Dresdengo Eskola Tekniko Nagusiko arkitektura ikasleak ziren. Zaharrena Kirchner zen. Taldeko kide guztiek Van Gogh-en, Gauguin-en eta Munch-en lanetan, Afrikako eta Ozeaniako arte primitiboan eta aurreko alemaniar artean interes handia zuten. Paisaiak eta giza gorputzak, hiri eszenak eta barnealdeak esistentziaren itsusitasuna islatzen zuten. Ikuskariak, gaixo biluzien, zoroaldien, apokalipsien eszenak agertu ziren. Bestaldetik, kezka politikoak eta moralak ere ikus daitezke.

Haiek landutako erakusketa ibiltariak Dresden eta Alemaniako hiri batzuetan, Eskandinavian eta Suitzan izan ziren. 1911. ean, taldeko kide guztiek Berlinera jo zuten, hango egoera artistikoa oso egokia zelako artea sortzeko.

Fritz Bleyl-ek 1909an utzi zuen taldea eta beste kide batzuk sartu ziren Zubian: Max Pechstein, Emil Nolde, eta Otto Müller. Beste pintore batzuek taldean hartu zuten parte, baina haien lana ez zen hain garrantzitsua suertatu: Cuno Amiet (Suitza), Axel Gallén-Kallela, Van Dongen (Holanda).

ERNST LUDWIG KIRCHNER

- “Emakumeak nagiak ateratzen” (1907)
- “Bikotea biluzik” (1908)
- “Emakume gaztea jesarrita, kapela eta zigarroarekin” (1909)
- “Dantzatzuz gona urdinarekin” (1909)
- “Dantzari beltzak” (1911)
- “Emakume biluzia eta jesarria” (1912)
- “Friedrichstrasse, Berlin” (1914)
- “Cocotte gorriaz” (1914)
- “Emakumeak kalean” (1914)
- “Jendea erakusleiho baten aurrean” (1914)

ERICH HECKEL (1873-1970)

- “Die Brücke erakusketarako kartela” (1908)
- “Emakume etzanda” (1909)
- “Neska panpinarekin” (1910)
- “Umea zutik” (1910)
- “Emakume gaisorik” (1913)
- “Emakumea kapela luze batekin” (1913)
- “Bi gizon zauritu” (1914)

EMIL NOLDE (1867-1956)

- “Eskribauak” (1911)
- “Maskarak” (1911)
- “Familia” (1917)
- “Eslovakiarrak” (1911).
- “Agerkundeak” (1922)

Der Blaue Reiter (Zaldun Urdina) (1911-1916)

Artelan libreak egiten saiatutako margolari talde baten izena dugu “Der Blaue Reiter”. Barruko beharrei erantzuna eman nahi zieten. 1911. ean sortu zen talde hau Franc Marc eta Wassily Kandisky ikerketa estetikoei buruzko liburu bat prestatzen hasi zirenean. Talde horretan ez zeuden bazkideak ezta ordenantzak edota erregistroak, artisten harreman librea baino ez zen eman.

Gero Kandisky-k, Gabriela Münter-ek, Franz Marc-ek eta beste batzuek erakusketa bat antolatu zuten. Taldearen izena almanake batetik etorri zen. Kandisky-k eta Marc-ek

almanake hori 1912. ean argitaratu zuten. Kandisky-ren lanetan zaldunaren irudia askotan agertu zen eta Marc-en gustuko kolorea urdina eta gustuko animalia zaldia zen.

Der Blaue Reiter taldeko kideek adierazpenaren eta esperientziaren askatasuna bultzatu zuten. Ez zegoen Zubia taldekoek zuten egitarau zehatz bezalakorik. Argitaraturiko almanakean baino ez ziren gidarien eritziak ikasten. Adibidez, testu horretan, Kandisky-ren musikaren eta artearen harremanekiko interesa iger daiteke eta baita Marc-en interesa herri primitiboaren eta umeen arteko erlazioan. Almanake honetan beste testu batzuk agertu ziren. Esaterako, Thomas van Hartmann-en “Musikan anarkia” eta Arnold Schoenberg-en musikaren eta artearen arteko harremanei buruzko saiakera bat. Bestalde, arte primitiboaren, umeen eta arte folklorikoaren ilustrazioak agertzen dira. Zentzu honetan, Marc-ek hauxe esan zuen: “Crear formas es vivir. ¿No son acaso los niños, que conciben directamente y desde sus más secretos sentimientos, más creadores que los que imitan el arte griego? ¿No son los animales artistas, que tienen su forma propia, tan fuerte como el trueno?”. Eta arte primitiboari eta folklorikoari buruz hauxe esan zuen: Sus obras son la experiencia de su vida interior. Son la forma de su imaginación artística en los materiales de la pintura”

Kandisky-k eta Klee-k Marc-en eta Macke-ren heriotzarekin eta Alemaniako egoera larriarekin taldea desegin zuten. Geratu ziren pintatzaileak bere kabuz ikasi zuten.

Kontzeptuei zegokienez, taldearen ideia antipositibistak Bergson-en intuizionismorantz eta Maeterlinck-en simbolismorantz hurbildu ziren, tonu mistiko baten barruan.

FRANZ MARC

- “Zaldi urdin txikiak” (1911)
- “Ardiak” (1912)
- “Abereak paisaian” (1914)
- “Katuak” (1914)
- “Orein gorria” (1913)

AUGUST MACKE

- “Indiarrak zaldiz” (1911)
- “Erauntsia” (1911)
- “Zoo” (1912)
- “Erakusleho handi eta argitsua” (1912)
- “Ballet errusiarra I” (1912)
- “Orekaria” (1914)

Vienako Sezession

Hiriburu honen barruan espresionismoaren ideiak eta jarrerak hedatu ziren. Kultura burgesaren kontrako jarrera nabarmen bat antzeman zezakeen. Mugimendu honen arduradun aipagarrienak Oskar Kokoschka, A. Kubin, R. Gerste eta E. Schiele

marraskilaria izan ziren. Ez zuten talde bat osatu, dena den, jarrera piktoriko eta ideologiko berberak zituzten banakako sortzaileak izan arren.

OSKAR KOKOSCHKA

- “Martha Hirsch” (1909)
- “Felix Albrecht Harta” (1909)
- “Adolf Loos” (1909)
- “Hans Tietze eta Erica Tietze-Conrat” (1909)
- “Conte Verona” (1910)
- “Autoerretatua panpinarekin” (1922)
- “Autoerretatua beso gurutzatuekin” (1923)
- “Artista endekatuaren autoerretatua” (1937)